



HEI

HERRITARTASUNERAKO
ESKOLA IREKIA

PARTE HARTU!



2016 / 17

VITORIA-GASTEIZ
ZEURE BAITAKOA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HEI. HERRITARTASUNERAKO ESKOLA IREKIA

EGIZU LAN GASTEIZEN ALDE


Gasteizen zerbait hobetu daitekeela pentsatzen baduzu orain duzu urratsa egiteko aukera ezin hobea. Egizu lan zure hiriaren alde.

Sartu HEIn eta egizu lan guztion artean Gasteiz eraikitzeko eran datorren aldaketa horretan.

Parte-hartzearen alorrean dugun kultura hobetzen laguntzeko sortu da HEI, bideak, parte har dezakezun eremuak eta zu erosoago egongo zaren esparruak ezagutzen laguntzeko; azken finean, lan eginez Gasteiz guztiontzat hiri hobea izatera eramango duen gizarte bat lortzeko.

BADAKIZU ZER DEN HEI?

HEI, Herritartasunerako Eskola Irekia da, topaketarako eta prestakuntzarako gune bat eta Gasteizko udalerrian bizi garen guztiontzat irekia dagoena, Herritarren Parte-hartze Zerbitzuaren barruan.



¡HEI! HASIKO GARA?



ZERTARAKO?

HElrekin lortu nahi dena da zuk gero eta protagonismo handiagoa izatea eta kudeaketan eta udalaren politikan motibazio eta prestakuntza gehiagorekin parte hartzea. Gaur egun aurrerapen handiak egiten ari dira kudeaketa publikoaren modernizazioan eta nagusiki erakundeetan gardentasun handiagoa izatera eta horietan herritarren parte-hartzea gehitzera bideratutakoak dira. Parte-hartzearekin aldaketa bultzatuko duzu, Gasteizko zure hirian zerbait hobetu daitekeela pentsatzen baduzu, egizu lan HEIn. Gasteiz hiri demokratikoagoa, gardenagoa eta zoriontsuagoa izatea lortuko dugu denon artean.

ZERGATIK?

Herritarroi dagokigulako gure erkidegoaren alde lan egitea, eragiten diguten erabaki publikoetan parte hartzea, izan ere, herritar izateagatik eskubideak ditugu eta erantzukizunak hartu behar ditugu gure gain. Demokrazia errotzea eta sendotzea ere gure esku dago eta, horretarako, parte-hartzearen kultura landu eta zabaldu

behar dugu gure eguneroko jardunean, eragiten digun alorrean, gure ingurukoan, gure erkidegoan, hirian...

Eta herritarrok hiriaren alde egunero lan egiten dugun bezalaxe, HEI ere zure baitakoa da eta horretan parte-hartzea garrantzitsua da benetan.

ZER EGIN NAHI DUGU?

Hemen aurkeztu dugun jarduera-programarekin parte-hartzearen barruan sortzen diren prestakuntza-, motibazio eta eskuduntza-premiei eman nahi diegu erantzuna eta erakundea eta udal funtzionamendua eta, nola ez, herritarren parte-hartzerako ereduak hobeto ezagutzen lagundu nahi dugu.

Ekintza horietako batzuk prestakuntzara bideratutakoak dira, beste batzuk gaikuntzara, beste batzuk espermentaziora eta ikerketara, beste batzuk komunikaziora, eta horiek guztiak topaketarako eta harremanetarako gune moduan eratu dira. Partekatzea, elkarrekin lan egitea, ekarpenak egitea, hobetzea eta

adostasunak lortzea izango dira garatu beharreko eta eguneroko udal-kudeaketan txertatu beharreko balioak.

NORK HAR DEZAKE PARTE ESKOLAN?

Udalerriko herritar guztiek: politika alorrekoek, teknikariek, hiri-erakundeek (elkarteak, fundazioak, herritarren kolektiboak, plata-forma eta koordinakundeak, gizarte mugimenduak) eta gainerako herritarrek nor bere izenean.

NOLA PARTE HAR DAITEKE?

Modu eta maila oso desberdinean har daiteke parte, dituzun aukeren eta gogoaren arabera; jardueretara joanez, beste batzuk proposatuz, ebaluazioan parte hartuz, beste ekintza batzuk sortuz,... guztion artean, inklusibitatean, berdintasunean eta iraunkortasunean oinarritutako Gasteiz egingo dugu. Demokraziak lotura handia du herritar parte-hartzaile, arduratsu, informatu eta guztien ongizatea lortzeko lanean ari direnekin.

HEIk, zuri esker, sustrai sendoak bota nahi ditu, osasuntsu eta iraunkor hazi, eta lortu nahi du horren fruituak gizarte bidezkoak, inklusiboak eta berdintasunezkoak elikatuko dituzten giza balio unibertsalak izan daitezela.

**Sar zaitetz zure
eskolan, zatoz HEIra!**

HEI Programa 2016/17 ikasturtea

2016 / 17
IKASTURTEAREN
IREKIERA
XXI. mendeko
herritartasuna

25

IKASTAROEN
AURKEZPENA
Gizarte-gaitasunak
HITZALDIA
Entzuten ikasi

30

HERRITARREK PARTE
HARTZEKO JARDUNALDIA
Aurrekontu parte-hartzaileen bidez
hiria eraldatu

17

URRIA


AZAROA

ABENDUA

URTARRILA

DINAMIKA
PARTE-HARTZAILEA
Eskola eraikitzen

8



IKASTAROAK
Elkarlana

17

31



INFORMAZIO-HITZALDIA

Datuak Babesteko Legeak nolako eragina duen

2

IKASGELA TREKIA

Gure hiri-eredua eraikitzen

14

ATE IREKIEK JARDUNALDIA

Ezagutu zure Udala

21

4

2016 / 17 IKASTURTEAREN AMAIERA

Gobernu Irekia eta Gardena

27

OTSAILA

MARTXOA

APIRILA

MAIATZA

21

IKASTAROA

Gatazkaren kudeaketa positiboa

9

INFORMAZIO-HITZALDIA

Gardentasunerako, Informazio Publikoa Eskuratzeko eta Gobernu Onerako Legeak nolako eragina duen

3

DINAMIKA

PARTE-HARTZAILEA

Nolako eskola nahi dugun.
2016/17 ikasturterako proposamenak

2016/17 IKASTURTEAREN IREKIERA

Eguna:

- **urriak 25.** 18:00-20:00

Lekua: Europa Biltzar Jauregia.

Francisco de Vitoria Auditoriuma.

Sarrera librea aretoa bete arte

- **ESKOLAREN AURKEZPENA:**

Parte-hartzaileak:

Gorka Urtaran Agirre. Gasteizko Alkatea.

Isabel Martínez Díaz de Zugazua. Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzia.

- **HASIERAKO HITZALDIA: XXI. mendeko herritartasuna**

Javier Sádaba Garay eta Estibaliz Ruiz de Azuaren arteko elkarrizketak.



Javier Sádaba Garay

Portugaleten jaioa (Bizkaia), erretiroa hartu duen arte, Etikako katedraduna izan da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Erroman, Tubingan, New Yorken eta Oxforden osatu ditu ikasketak. la berrogei liburu eta artikulu ugari idatzi ditu, bai gai espezializatuei buruz eta bai irakurlego zabalari zuzenduak ere. Argitaratu dituen azken hiru liburuak hauek dira: "Memorias Comillenses", "La religión al descubierto" eta "¿Van los perros al cielo?".



Estibaliz Ruiz de Azua

Kazetaritzan lizentziatua eta protokoloan eta harreman publikoetan aditua da. Cadena Ser-Vitoria irratian hasi zen lanean. Gero, EITBko plantillaren barruan sartu zen, "Politicamente incorrecto" saioan edo Teleberri albistegian lan eginez, beste saio askoren artean. Deia eta Noticias de Álava egunkarietan ere parte hartu izan du.

Eguna:

- azaroak 30. 18:00-20:00

Lekua: Goiuri Jauregia. Martín de Salinas Aretoa.

Sarrera librea aretoa bete arte

- **IKASTAROEN AURKEZPENA GIZARTE-GAITASUNAK**

Programatutako ikastaroak ezagutuko ditugu, eta horren helburua lankidetzaz garatzea izango da, horixe baita jarrerarik garrantzitsuenaren partaidetza-organoen eraginkortasuna bermatzeko eta kompetentzietan trebatzeko, taldeen mehatxu nagusiei aurre egin nahi badiegu, hots: desadostasunei eta gatazkei.

- **HITZALDIA. ENTZUTEN IKASI**

Hizlaria: *Enrique Sacanell*

Enrique Sacanellek entzutearen mundua zabalduko digu: "bihotzez entzuteak esan nahi du gure bihotza eta maitatzeko eta estimatzeko dugun ahalmena erabiliko ditugula hautemateko organo gisa". Bere blogean azaltzen digunez, "gertatzen denaren inguruan etengabe ematen ditugun balioespenak eta iritziak entzuteari utzi eta ikuspegi berrietara, gertatzen zaiguna ulertzeko eta interpretatzeko modu berrietara irekitzen ahalegindu behar dugu".



Enrique Sacanell

Coach sistemikoa da, eta taldeen aldaketa, lidergo eta garapen-prozesuetan aditua. Politika Zientzietan eta Soziologian Lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Ingurune politikoetako coaching arloan aditua Europako Coaching Eskolan. Practitioner Programazio Neuro-Linguistikoa. Talde Analisis aditua The Institute of Group Analysis of London erakundearen. Ebaletzaile seniorra Bikaintasunaren Euskal Fundazioan (EUSKALIT).



Eguna:

- **abenduak 17.** 9:30-12:00

Lekua: Europa Biltzar Jauregia.

Francisco de Vitoria Auditoriuma

Sarrerak doan, aurrez izena emanez gero, edukiera ahitu arte.

Aurrekontu parte-hartzaileak 1989. urtean sortu ziren Brasilgo Porto Alegre hirian, herritarrek udal aurrekontuan eragin bat izateko eta parte hartzeko tresna gisa. Orduz geroztik, esperientzia ugari topa ditzakegu bai Ameriketara eta bai Europan ere, eta halaber, aurrekontu parte-hartzaileen gaiaren inguruan topaketa eta jardunaldi ugari egin dira.

Gasteizen, 2016. urte honetan, "Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz" programa jarri da abian, gasteiztarrek beren proposamenen bitartez erabaki dezaten zertan inbertitu nahi dituzten 2017. urteko udal aurrekontuko 3.000.000 euro.

Jardunaldi hauen xedea topagune bat izatea da, eta estatuko beste udalerrri batzuetan aurrekontu parte-hartzaileen inguruan egiten ari diren esperientziak ezagutzeaz gain, udal aurrekontuak lantzen dituen tresna berri hau ezartzeko modu desberdinen inguruan hausnartu eta eztabaidatu nahi dugu.

- **9:30-12:00. ESPERIENTZIAK**

Bartzelona, Irun, Getafe eta Gasteiz hirietako ordezkariak beren udalerrietan garatzen ari diren aurrekontu parte-hartzaileen inguruko esperientziak aurkeztuko dizkigute.

- **12:00. ATSEDENALDI-KAFEA**

- **12:30-14:00. DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA:**
Aurrekontu parte-hartzaileak.

Bartzelona, Irun, Getafe eta Gasteizko hirietan landutako aurrekontu parte-hartzaileen ereduak proposamen eta proiektu desberdinak ezagutu ondoren, udal aurrekontuen prestakuntzan herritarren parte-hartzearen gakoak zein izango diren partekatze-ko, eztabaidatzeko, ikasteko eta proposatzeko unea iritsi da.

Zure ahotsa eta zure iritzia funtsezkoak dira herritarrek pentsatutako hiri-eredua garatzeko.

Zatoz eta parte hartu! Egizu lan Gasteizen alde.



Eguna:

• **martxoak 14.** 18:00-19:30

Lekua: Goiuri Jauregia. Martín de Salinas Aretoa.

Sarrera librea aretoa bete arte

• MAHAI-INGURUA:

Gure hiri-eredua eraikitzen. Ikasgela irekian herritarrak, beren egungo errealitatea eta beren erronka nahiz aukerak oinarritzat harturik hiri-eredu bat nola eraiki daitekeen erakusten duten ikuspegi desberdinak modu erraz eta atseginean ezagutzeko aukera izango dugu.

Parte-hartzaileak:



José Ángel Cuerda

Abokatu eta unibertsitateko irakaslea. Diputatua Kongresuan eta Eusko Legebiltzarrean. Gasteizko Alkatea (1979-1999). "Bizitza Berria" elkartereko lehendakaria (etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko elkarte). "Ignacio Ellacuria" 2015 Saria.



Mentxu Ramilo Araujo

Politika eta Administrazio Zientzietan Lizentziatua EHUn. Egun, Herritarren Parte-hartzearekin, Elkarlanarekin, Ahalduntzearekin eta IKTeekin, Ondasun Komunarekin eta abarrekin loturiko gaiak lantzen ari da.



Martín Gartzandia

Zuzenbidean Lizentziatua eta unibertsitateko aditua Lurraldearen Antolamendu eta Kudeaketan EHUn, masterra Energiaren Zuzenbidean. Sindikoa, 2012ko azaroaren 30etik aurrera. Gasteizko Udaleko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko Lehendakaria.



Melania Moscoso

Pedagogian Lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Doktorea Politika Zientzietan eta Soziologian. Egun EHUko antropologiako irakaslea da eta desgaitasunarekin loturiko gaiak ikertzen ari da.

Eguna:

- **maiatzak 27.** 10:30-14:00

Lekua: Europa Biltzar Jauregia.

Francisco de Vitoria Auditoriuma.

Sarrera librea aretoa bete arte

• **ESKOLAREN LEHEN IKASTURTEAREN ONDORIOEN AURKEZPENA**

Amaierako ekitaldiaren barruan, ikasturtean zehar egindako dinamika eta jarduera batzuetan, 2016/17 ikasturtea hobetzeko aipatutako proposamenak eta ondorioak aurkeztuko dira, gure udalerriko herritarrek parte hartzearekin.

Ondorio eta proposamen horiek 2017/18 programa prestatzeko eta eraikitzeko oinarria izango dira.

• **HITZALDIAK: Gobernu Irekia eta Gardena**

- Gobernu Irekia: Alberto Ortiz de Zárateren eskutik.
- Erakundeen gardentasuna: Nagore de los Ríosren eskutik.



Alberto Ortiz de Zárate

Aholkularia, hizlaria eta irakaslea zenbait alorretan: Open Government, Open Data, berrikuntza publikoa, e-Government eta abar. Eusko Jaurlaritzako herritarren arretarako Zuzendaria izan zen eta eginkizun garrantzitsua bete zuen gobernu irekiaren politikan. 2010. urtean Open Data Euskadi inauguratu zuen, datu publiko irekien lehen atari ez-anglosaxoa.



Nagore de los Ríos

Komunikazioan, Gobernuan eta Datu Irekietan aditua da, eta hainbat eta hainbat erakunderi laguntza eskaini die Open politiken inguruko aholkuak emanez. Herritarrak, ekintzaileak, enpresak, bezeroak, kontsumitzaileak, kazetariak, gizarte zibila eta gainerako erakundeak parte hartzerako bultzatzeko helburuarekin betiere.

ESKOLA ERAIKITZEN

Eguna:

- **azaroak 8.** 18:00-20:00

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea.

San Inazio Loiolakoa, 8.

Sarrera doan, aurrez izena emanez gero (plazak: 50)

Dinamika parte-hartzaileak, hain zuzen ere, partaidetza-ereduari buruz eta HEIari buruz ikasteko, gogoeta egiteko eta komunikatzeko eremu bat dira.

HEI zurea da eta garrantzitsua da zuk horren eraikuntzan parte hartzea. Horregatik, lehen dinamika hau parte-hartzearen kontzeptuaren ingurukoa da. Zer da guretzat parte hartzea? Zein puntu hobetu behar dugu parte-hartze eraginkor bat erdies-tereko? Zer espero dugu HEI horretatik, hobekuntza hori lortzeko?

Herritarrok, politikariok, teknikariok osatzen dugu gure hiria eta geuk izan behar dugu aldaketaren protagonistak. Denok asko dugu ikasteko baina baita asko eskaintzeko ere. Animatuko gara? Ziur nago emaitza aberasgarria izango dela.

Zatoz eta parte hartu! Egizu lan Gasteizen alde.

NOLAKO ESKOLA NAHI DUGU: 2017 / 18 IKASTURTERAKO PROPOSAMENAK

Eguna:

- **maiatzak 3.** 18:00-20:00

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea.

San Inazio Loiolakoa, 8.

Sarrera doan, aurrez izena emanez gero (plazak: 100)

2016/17 programaren ebaluazioa eta hurrengo ikasturterako proposamenak.

Dinamika parte-hartzaile honetan aukera izango nolako eskola eraiki nahi dugun erabakitzeko eta zer programa nahi izango genukeen 2017/18 ikasturterako. Era berean, talde eragile bat sortu nahi dugu, Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuarekin batera, eskolaren hurrengo ikasturtearen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartuko duena.

HEI honetan garrantzitsua zer den balioesteko aukera izango dugu, eta zer prestakuntza, ekitaldi, dinamika eta gai landu beharko genukeen 2017/18 ikasturtean. Partekatzeke, elkarlanean aritzeko eta gogoeta egiteko unea da; HEI denon artean egiten dugu, zure ideiak eta ekarpenak garrantzitsuak dira inklusibitatean, berdintasunean eta iraunkortasunean oinarritutako Gasteiz egiteko.

2 ikastaro: bat arratsaldeko ordutegian eta bestea goizeko ordutegian.

Arratsaldeko ordutegia duen ikastaroaren egunak:

- **urtarrilak 17 eta 24.** 16:00-20:00
(8 ordu, 4 orduko 2 saiotan)

Goizeko ordutegia duen ikastaroaren egunak:

- **urtarrilak 31 eta otsailak 7.** 10:30-14:30
(8 ordu, 4 orduko 2 saiotan)

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea.
San Inazio Loiolakoa, 8.

Norentzat: Herritarrentzat, udal teknikarientzat eta ordezkari politikoentzat.

Sarrera doan, aurrez izena emanez gero (ikastaro bakoitzeko plaza: 25)

Helburua:

- Elkarlana garatzen laguntzea, herritarren parte-hartzerako organoen eraginkortasuna bermatzeko jarrera garrantzitsu gisa. (Elkarguneak eta Auzoguneak).
- Talde-lana sustatzea eta lantzea, garapena, interdependentzia eta elkarrekin sortzeko gaitasuna erraztuko duten hazkunde pertsonaleko teknika eta dinamiken bitartez.

Programa:

- 1.- Zer esan nahi du elkarlanak?
- 2.- Orientazioa: Zertarako nago hemen?
 - *Kidetasun-sena*
 - *Eginkizuna*
- 3.- Onarpena: Zer espero dezaket zugandik?
 - *Elkarrenganako konfiantza*
- 4.- Helburuak argitu: Zer egingo dugu?
 - *Helburu garbiak*
 - *Eginkizunak ongi bereziak*
 - *Sormena - Dinamikak*
- 5.- Parte-hartze kolektiboa: Nola egingo dugu?
 - *Interdependentzia - Lanaren ikuspegi partekatua*

Metodologia:

Ekintzarako gogoeta-tailer modura garatua. Gogoeta pertsonalerako ariketak eta banakako nahiz taldekako coaching teknikak erabiliko dira, horrelakoen potentzialaz eta taldean lan egiteak dituen zailtasunez norberak gogoeta egin dezan, eta halaber, ohitura batzuk garatu daitezen eta herritarren parte-hartzerako organoetan konpromisoa eta erantzukizuna sor dadin. Elkarlanerako metodologia eta dinamika parte-hartzaile desberdinak esperimentatuko dira.

Hezitzailea:

Emma Ortiz Barredo

Eguna:

- **otsailak 21 eta 28.** 16:00-20:00

(8 ordu, 4 orduko 2 saiotan)

Lekua: Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea.

San Inazio Loiolakoa, 8.

Norentzat: Herritarrentzat.

Sarrera doan, aurrez izena emanez gero (ikastaro bakoitzeko plazak: 25)

Helburua:

- Benetako konpetentziak lantzea eta horietan trebatzea, taldeen mehatxu nagusiei (desadostasunei eta gatazkei) aurre egiteko.
- Emozioek lantaldeen gainean duten eragina identifikatzea. Emozioak eta energia taldeetan: ekintzarako mugimendua.
- Gatazka positiboki kudeatzen ikastea, horren erabilera sortzailea eginez.

Programa:

- 1.- Gatazka ulertzea. Nola sortzen da gatazka?
 - *Jatorria eta bilakaera*
- 2.- Gatazkari aurre egiteko paradigma berri bat: Lan globala
- 3.- Gatazkan dugun inplikazio pertsonala ezagutzea: Norberaren kontzientzia

- 4.- Emozionaltasuna taldeetan

- *Emozioak eta horien funtzionamendua*
- *Oinarrizko gogo-aldarteak: Zer egin horiekin?*

- 5.- Gatazkaren kudeaketa positiboa eta eraikitzailea: Negoziazio-teknikak

Metodologia:

Parte-hartzailea eta guztiz praktikoa. Parte-hartzaileak inplikaturatuta egon diren zailtasun eta gatazken benetako kasuekin lan egitea proposatzen da. Horrez gain, talde-dinamikak erabiliko dira, hausnarketa eta konpromiso indibidualeko ariketekin batera, baita bizipen-ariketak ere, programaren kontzeptuak eta trebeziak sentikortasunez bizitzeko aukera eman-go dutenak.

Hezitzailea:

Emma Ortiz Barredo

Psikologian lizentziatua (Deustu), Masterra Giza Baliabideen kudeaketan eta Coach Sistemikoan. Zuzendari Tekniko eta Aholkulari gisa lan egin du Aholkularitza Zerbitzu desberdinetan, eta pertsonentzako, taldeentzako eta kultura-eraldaketarako Heziketa eta Garapen proiektuak prestatu ditu. Gaur egun Coach-Aholkularia da eta zenbait sektore pribatu eta publikotako erakundeentzat lan egiten du.



Datuak Babesteko Legeak nolako eragina duen

Eguna:

- **martxoak 2.** 17:00-19:00

Lekua: Simone de Beauvoir Elkarten Etxea.

San Inazio Loiolakoa, 8.

Norentzat: Herritarren erakundeentzat, elkarteentzat, fundazioentzat,...

Sarrera doan, aurrez izena emanaz gero (plazak: 50)

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren helburua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea da, eta bereziki, oho-arekiko eta intimitate pertsonal eta familiarrekiko eskubidea.

Lege honetara hurbilpen bat egin nahi dugu, herritarren elkarteek dituzten premiak eta eskaerak kontuan izanik.

Gardentasunerako, Informazio Publikoa Eskuratzeko eta Gobernu Onerako Legeak nolako eragina duen

Eguna:

- **martxoak 9.** 17:00-19:00

Lekua: Simone de Beauvoir Elkarten Etxea.

San Inazio Loiolakoa, 8.

Norentzat: Herritarren erakundeentzat, elkarteentzat, fundazioentzat,...

Sarrera doan, aurrez izena emanaz gero (plazak: 50)

Gardentasunerako, Informazio Publikoa Eskuratzeko eta Gobernu Onerako abenduaren 9ko 19/2013 Legea. Helburu hauek ditu: jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea eta arduradun publikoek bete behar dituzten gobernu onaren betebeharrak ezartzea. Legeak finkatzen du erakunde publikoek zer argitalpen-betebehar dituzten beren jardueran gardentasuna bermatzeko, eta halaber, herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du.



ATE IREKIEN JARDUNALDIA EZAGUTU ZURE UDALA

Egunak:

- **martxoak 21.** 11:00-12:00 (*Gaztelania*)
- **apirilak 4.** 18:00-19:00 (*Euskara*)

Norentzat: Herritarrentzat.

Sarrera doan, aurrez izena emanez gero (plazak: 40)

Udaletxera bisita gidatua eginez, Udala ezagutuko duzu: udal antolamendua (Alkatea, Udalbatza, Udaleko Gobernu Batzordea, alderdi politikoak...) eta administrazioarena (Departamentuak, Zerbitzuak eta Unitateak; Erakunde autonomoak...).

Bisita honen helburu nagusia herritarrei udalarekin loturiko gaien inguruko heziketa eskaintzea da, eta zehazkiago, udaleko erabakitze-organoen antolamendu, funtzionamendu eta konpetentziak landuko ditugu.

Jardunaldi honetan, halaber, parte hartzeko organoen mekanismoak eta funtzionamendua ezagutuko ditugu; udalbatzaren erabakietan duten eragina, eta gutako bakoitzak nola parte har dezakegun modu aktibo batean gure udalerraren eraikuntzan.



INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

- Jarduera guztiak doan dira.
- Hitzaldiak eta mahai-inguruak: sarrera librea aretoa bete arte.
- Ikastaroetarako, jardunaldietarako, heziketa-hitzaldietarako eta Udalera bisitak egiteko, beharrezkoa da aurrez izena ematea inprimaki bat betez. Inprimaki hau eskuragarri egongo da jarduera hasi baino 15 egun lehenagotik.

IZENA EMATEKO:

- Internetez **www.vitoria-gasteiz.org/hei**
- **010** telefonora deituz, edo **945 16 11 00** zenbakira, hiritik kanpo deituz gero.
- Aurrez aurre **Herritarren Arretarako Bulegoetan**.
- Twitterren: **#HEieskola**

• *Eskolako jardueretarako plazak izena emateko hurrenkeraren arabera esleituko dira.*

• *Izena eman baduzu, baina azkenean ezin baduzu jarduera egin, hasi baino lehen jakinarazi iezaguzu, 945 161687 zenbakira deituz / heieskola@vitoria-gasteiz.org. Jardueran baja emanez gero, zuk libre utzitako plaza beste pertsona batek bete ahal izango du.*

• *Izen-emateen gutxieneko kopurura iristen ez diren jarduerak bertan behera gera daitezke.*

• *Hitzaldietan zeinu-lengoiaren interpreteak izango dira.*

• *Hitzaldietan eta mahai-inguruetan haurtzaindegi-zerbitzua eskatu ahal izango da, 5 egun lehenagora arte, heieskola@vitoria-gasteiz.org posta elektronikoaren bidez edo 945 16 16 87 zenbakira deituz.*





Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Egilea: Herritarren Parte-hartzerako
Zerbitzua

Itzulpena: Eskura

Diseinua: Bikonsulting

Argazkiak: Quintas, Bikonsulting

Inprimatzaile: Four&You